

DBH1 EUSkara: "**Sentimenduen inbentarioa**"
Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Sentimenduak eta haien zergatiak adierazteko lexiko eta egitura egokiak erabili.	1.1 Eskainitako sentimenduak eta horiek adierazteko hitzak, lokuzioak, esaldiak, erlazionatzen eta berriak adierazten ditu. 1.2 Zergatiak adierazteko egiturak egoki eta zuzen erabiltzen ditu.
2. Literatur testuak aztertuz haietan adierazten diren sentimenduak interpretatu .	2.1 Emandako testuak interpretatu eta bertan adierazten diren sentimenduak adierazten ditu. 2.2 Interpretazioak justifikatu eta azaltzen ditu testuetako sentimenduak adierazten dituzten hitzak, hitz multzoak, lokuzioak etab. baliatuz .
3. Emandako testu poetikoen imitazioaren edo eraldaketa gidatuaren bidez, sentimenduak adierazten dituzten poemak sortu .	3.1 Emandako testu poetikoetan metaforak identifikatzen ditu. 3.2 Emandako testu poetikoak osatzeko konparazio egokiak hautatzen ditu.
4. Emandako euskarrietan/ereduetan (testu/hitz multzo) izenak, adjektiboak eta aditzak identifikatu eta gramatika elementu horiek eskatutako irizpideen arabera aldatu .	4.1 Emandako testuetan, kategoria gramatikalen baitan (izena, adjektiboa eta aditza) eskatutako hitzak identifikatzen ditu. 4.2 Emandako testu poetikoetan eskatutako hitzak ordezkatzeko , zuzentasun-arauak kontuan izanik, egokiak hautatzen ditu (adjektibo egokiak, aditz jokatu egokiak, denbora egokian jokatutako aditzak, etab.).
5. Norberak hautatutako zein emandako poemaren irakurketa adierazkorra egitean landutako baliabideak egoki aplikatu.	5.1 Poemaren irakurketa adierazkorra prestatzeko , poemak adierazten duen sentimendua interpretatzen du. 5.2 Poemaren irakurketa adierazkorra prestatzeko , poemako hitz edo zati esanguratsuak identifikatu eta nabarmentzeko modu ezberdinak erabiltzen ditu. 5.3 Testu poetiko baten ahoz gorako irakurketa prestatzeko, elkarketa fonetikoak identifikatzen ditu.
6. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko ekoizpenean.	6.1 Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira. 6.2 Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.
7. Ahozko tertulia literarioa sortu, mintegiak hautatutako irakurketa-liburua irakurri eta ulertu ondoren.	7.1 Irakurritako literatur-testua irakurri eta ulertzen du. 7.2 Irakurketa-liburuaren inguruan egiten zaizkion galderei zuzen erantzuten die eta horien inguruko taldeko hausnarketan parte hartzen du. 7.3 Tertulia literarioa egiten du gelakideekin elkarreraginean eta erregistro egokia erabiliz.
8. Bertsolaritzaren oinarrizko alderdiak ezagutu.	8.1 Euskal Herriko bertsolari nagusiak ezagutzen ditu. 8.2 Historiako bertso famatuak ezagutu eta ulertzen ditu. 8.3 Bertsolaritzaren oinarrizko arauak ezagutzen ditu.